

# Ekonomia eta Enpresaren arloko euskarazko produkzio zientifikoa *Uztaron*

Galder Guenaga Garai eta Mikel Zurbano Irizar  
UPV-EHU eta UEUren Ekonomia Saileko kideak

Ehun zenbaki osatu ditu *Uztarok*. Euskal Komunitate Zientifikoarentzat eta batez ere Giza eta Gizarte Zientzien arloan ari garenontzat zorioneko mugarria da. Ehun zenbaki eta hogeita zazpi urteren ondoren aldizkaria indarrean dago, dinamikoa eta funtzionala izaten jarraitzen du, egoera akademiko berrietara egokitu da erreferentzia izatera heltzeraino.

Hasierako helburuak aise gainditu dira. *Uztaro* 1990eko hamarkadarekin bidea egiten hasi zen. Orduan arlo akademikoan eta zientifikoan Ekonomiari eta Enpresari buruzko euskarazko produkzioa hasi berritan zegoen. Unibertsitatean euskarazko lerroak garatzen hasiak ziren. Beraz, testugintzan ematen hasi ziren urratsik behinenak 1980ko eta 1990eko hamarkadetan. Unibertsitate-arloko testuliburuekin batera hainbat erakunde ofizialen txostenak ere euskaraz argitaratzeko joera zabaltzen hasi zen. Liburugintzan aurrerapausoak bistakoak ziren. Beste arlo batzuetan bezala, Ekonomia eta Enpresaren arloan ere komunitate akademiko eta zientifiko euskalduna hezurmamitzen hasi zen. Komunitate horren partaideek bestelako produkzio zientifikoa eta akademikoa euskaraz egiteko oinarriak zeuden arren, horiek argitara eman ahal izateko aukerarik ez zen. Izan ere, noiz edo noiz aldian aldiko argitalpenak egin izan ziren, baina jarraitutasunik gabe. Tesigintzan ere euskararen presentzia, xumea izanik ere, gero eta zabalagoa izaten hasi zen. Tesien inguruko artikuluak argitaratzeko ere euskarri baten beharra nabarmena zen.

Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateak batez ere udako ikastaroen inguruan komunitate zientifikoaren saretzea ahalbidetu zuen hasierako garai horietan eta sortzen zen produkzio zientifikoa zabaltzeko ahaleginetan ziharduen. Ekonomia eta Enpresaren arloko udako ikastaroak urtero antolatzen ziren eta jende andana aritu izan zen irakasle zein ikasle ikastaroetan. Horrek lagundu zuen oinarriko terminologia eta hizkuntza akademiko propio bat garatzen. Izan ere, UZEIk urte batzuk lehenago argitaratutako Ekonomia eta Enpresa hiztegiak baliotsuak izan baziren ere, garapen akademiko berriaren testuinguruan bere mugak erakutsi zituen.

Hortaz, 1980ko hamarkadaren amaiera aldeko egoerak garbi erakusten zigun Ekonomia eta Enpresaren arloan, beste Gizarte Zientzien arloetan bezala, premiazkoa zela argitalpen iraunkorra sustatzea. Hori oso ondo ulertu zuen UEUK eta bere ekimenez sortu zen Giza eta Gizarte Zientzietako aldizkaria. Aldizkari baten sorrerak dituen berezko arazoez gain, *Uztaroren* erronka urtean lau zenbaki argitaratzeko kalitatezko produkzioa bermatzea izan zen. Ekonomia eta Enpresaren arloko ekoizpena zabala zen neurrian erronka aise gainditzea espero genuen, eta hala izan da; baina arloen arteko orekak eskatzen zuen beste arlo batzuetako produkzioa ere oparoa izatea. Ehun zenbaki eta gero esan daiteke erronkari eutsi egin diola *Uztarok*, nahiz eta tarteka arlo jakin batzuetan mugak ere egon diren.

Esana dugunez, Ekonomia eta Enpresaren alorrak aise eutsi dio erronkari: uzta oparoa eman du urtez urte eta ekarpen nabarmena egin dio, zenbakiz zenbaki, *Uztarori*. Esandakoaren argigarri, zenbait datu eta zenbaki plazaratuko ditugu jarraian, xehetasunetan itoko ez bagara ere. Hasteko, aipatzekoa da ezen, *Uztaroren* lehenengo 99 zenbakietan, Ekonomia eta Enpresaren arloak 98 fruitu eman dituela orotara (gehienak artikuluak, baina liburu-aipamenak eta tesi-lapurpenak ere bai). Ia fruitu bat, beraz, zenbaki bakoitzeko; eta ia lau fruitu urteko. Zenbakiok nabarmenak eta esanguratsuak dira beren horretan, baina munta handiagoa hartzen dute gainerako jakintza-arloetako uztarekin alderatuz gero. Baike, Ekonomia eta Enpresaren arloa izan da guztien artean emankorrena, *Uztaro* beste edozein jakintza-arlo baino gehiago elikatu duena. Esaterako (eta konparaziorako), zerrendan ondotik datozkion hurrengo bost jakintza-arloek 80na fruitu inguru eman dizkiote *Uztarori*: historiak, hizkuntzalaritzak, komunikazio eta kazetaritzak, psikologiak eta soziologiak.

Ezbairik gabe, Ekonomia eta Enpresaren arloak fruitu ugari eman du; *Uztaron* argitaraturiko lan ororen % 13, gutxi gorabehera. Bada zerbait. Horrez gain, ordea, adierazgarria da gure arloak ez duela urterik urte sekula hutsik egin: urtero eman du argitara gutxienez lan bat, salbuespenik gabe (historiak eta komunikazio eta kazetaritzak ere ez dute inoiz kale egin; baina horiexek baino ez).

Dena dela, kantitateaz harago, Ekonomia eta Enpresaren arloaren ekarpena nabarmentzekoa da ikuspegi kualitatibotik begiratuta ere: urteen joanean gure jakintza-arloa gero eta egile gehiago erakartzen joan da eta jorratutako gaiak eta edukiak ere —garaian garaikoak, kasu askotan pil-pilekoak— asko eta askotarikoak (izan) dira. 1990eko hamarkadaren hasierako egile aitzindarien lekukoari heldu eta sendo partekatu dute ikertzaile gazteek, eta, horrek, belaunaldi arteko transmisioa bermatzeaz haraindi, aberastu egin du, urtez urte, uzta zientifiko eta akademikoa. Kontuak kontu, hastapenetan bezalatsu oraindik ere egileen artean EHUko irakasleak dira nagusi, nabarmen gainera, nahiz eta beste unibertsitate eta bestelako erakunde batzuetako ikertzaileak ere gora doazen. Joera hori hauspotzea izango da, seguru asko, gerora begira *Uztaroren* eta gure jakintza-arloaren erronketako bat.

Horrenbestez, datuok argiro egiaztatzen dutenez, *Uztaro* ezinbesteko tresna izan da —eta gaur-gaurkoz ere bada— Ekonomia eta Enpresaren eremuko euskarazko ikerketa eta dibulgazio zein ezagutzaren transferentzia burutzeko. Eremu honetan komunitate zientifiko eta akademiko euskalduna zabaldu egin da azkenaldian,

Euskal Herriko unibertsitateetan eta, batez ere, EHUn euskararen presentzia hedatu egin den heinean. Irakasle elebidunaren irudia zabaldu da irakaskuntzalerro euskaldunak hedatzearekin batera eta horrek irakasleen ikerketa-jardueraren zati bat euskaraz egitea ekarri du. Bistakoa da irakaskuntza eta ikerketaren artean euskararen presentziak duen aldea. Aitortu behar da irakasleria euskaldunaren ikerketaren parte handiena erdaraz burutzen dela, batez ere gaztelaniaz baina baita ingelesez eta frantsesez ere. Ikerketak ahal bezainbeste zabaltzeko duen joera naturalak hizkuntza nagusien esparrura eramaten du haren ekoizpena. Gainera, irakasleek egonkortasun akademikoa eskuratzeko merituen artean lehen mailako betekizuna da ikerketaren emaitza izen bikaineko aldizkari zientifikoetan argitaratzea eta, horiek horrela, erdarazko aldizkarietan argitaratzeko joera oso indartsua da komunitate zientifiko elebidunean, baita, noski, Ekonomia eta Enpresaren arloan ere.

Nolanahi ere, *Uztaro* egoteak ahalbidetu —eta, are, xaxatu ere— egin du irakasle eta bestelako eragile ekonomiko euskaldunek beren ikerketaren emaitza euskaraz (*ere*) bideratzea. Ekonomia eta Enpresaren arloko Komunitate Zientifiko Euskaldunaren erreferentzia da *Uztaro*, zalantzarik gabe. Horrela, euskaraz argitara emateaz harago, *Uztaro* Ekonomia eta Enpresaren arloko komunitate akademiko euskaldunaren nolabaiteko ardatza ere badela esan genezake. Xumea baina egiaztagarria, ikerketa-arloan ere euskara hizkuntza funtzionala dela erakusten duena eta Komunitate Zientifiko Euskaldunaren ispilu ere badena.

Ezin gara, haatik, bertan gozo gelditu, egonean, lortutakoaz zeharo harro eta ase. Orain arte egindakoak etorkizuneko betebeharren akuilu izan behar du, lanerako pizgarri eta erronka berrietarako bide-erakusle. Erronka horietako bat, segur aski, *Uztarok* hartzaile eta emaile duen komunitate zientifiko euskaldun hori ugaritzea izango da: batetik, egile gehiago, asko eta askotarikoak, erakarri behar ditugu, EHUkoak eta EHUz kanpokoak; areago, hertsiki ezein unibertsitatetakoak ez diren egileak ere bildu eta geureganatu beharko genituzke, eta haien ekarpenak jaso eta *Uztaroren* bidez hedatu. Bestetik, *Uztaroren* hartzaileek osatzen duten komunitate zientifiko eta akademiko horren mugak ere birrindu eta gainditu beharko genituzke, bestelako barruti eta jendarte batzuegana ere irsteko. Horretarako, besteak beste, ezinbestekoa da gizarteak nahi eta behar dituen gaiak eta edukiak —gizartearen kezak eta koskak— *Uztaron* azaltzea eta lantzea, unean unekoak, tokian tokikoak, «urrutiko intxaurrak» bazter utzirik.

*Uztarok*, oro har, eta *Uztaroren* magalean Ekonomia eta Enpresaren jakintza-arloak, bereziki, zientzia gizarteratzeko zubi-lana egin behar du; baina gizartearen interesak eta premiak zientziaratzeko bitarteko gisa ere aritu behar du. Euskaraz, euskaldunok, euskaldunontzat.

